Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

404

Irailak 1, 2021

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Animalia etxegabeak
5 Ametsa Txiki Abesbatza
6 Studio 21
7 Kepa Ordoki MHB
8 Kirolak: Julen Aginagalde
9 Kirolak: Azeri Arku Tiroketa
10 Haurtxokoak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Sarah Grandes
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

Adineko pertsonentzako egoitzak

INFORMA ZAITEZ!

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko irailaren 4an argitaratu zen "El Bidasoa" aldizkariaren hasieran Junkaleko Andre Mariaren elizako hurrengo asteko elizkizunak Burgosen zendutako Mercedes Rodríguez Balzola de Barreiro andrearen omenez egingo direla azaltzen da. Jarraian, "El Bidasoa" aldizkariaren sorreratik 6 urte bete direla gogoratzen zaie irakurleei erredakzioak sinatutako idatzian. Aldizkariko kolaboratzaile batek idatzitako "Un señor salmón y una señorita joven" testuaren titularrak aurreratzen duenez, adineko gizon eta emakume gazte baten arteko maitasun istorioa kontzen da. "Desde extremeñas tierras, Evocación del Bidasoa" idatzian Angel Rosadok Bidasoa eskualdearekin lotutako oroitzapenak gogoratzen ditu, Extremadurako lurretan ikusten duenarekin alderatuz.

Aldizkariaren bigarren orrialdean kirol kronika ohi baino laburragoa aurkituko dute irakurleek, udako etenaldiaren ondorioz, kirol albiste gutxi daude eta. RE-LA-MI-DO kolaboratzaile ezagunak kasu honetan langileen eta abesbatzen arteko loturaz hitz egitea erabaki du eta langileen abesbatza bat sortzeko ideia ematen die. "Charlas femeninas" atalaren barnean, idazleak aldatu beharko liratekeen gauzei buruzko iritzia eman du, hirian antolatutako dantzek arrakasta handiagoa izan dezaten. "De todo un poco" atalean hainbat albiste labur biltzen dira: tranbiarekin lotutako gorabeherak aipatzen dira, automobilak hirian ibiltzen diren abiadura handia kritikatzen da eta hiriko mugikortasunarekin lotutako beste gai batzuez hitz egiten da.

Hirugarren orrialdean, berriz, muga zeharkatzeko pasaporteen erabilerarekin lotutako nobedadeen berri ematen da, muga igarotzeko baldintzak erraztu daitezela eskatzeko. Bestetik, Hondarribiko jaiak direla eta, alboko hirian datozen egunetan antolatzekoak ziren ekintzak zerrendatzen dira. Zenbaki guztietan errepikatzen diren "Notas Municipales" eta "Ecos de sociedad" atalen ostean, "Noticias" berri laburren atalarekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren 314. zenbakia.

Argazkiak:
38151: Antzinako Nazioarteko Zubia eta Bidasoa ibaiaren bi ertzak; atzealdean, Irun.

56595: San Juan plaza eta udaletxea. Ezkerrean, Adiskidetasunaren kasinoa ikus daiteke (eszena 1908tik aurrerakoa da).

57707: Zabaldu berria eta urbanizatua dagoen Colon pasealekuaren bista; eskuinean Zabaltza plaza (1908-1909).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aisialdiko begiraleentzako titulua eskuratzeko doako ikastaroa antolatu du Udaleko Gazteria arloak

Irungo Udaleko Gazteria Arloak iragarri duenez, datorren irailean, haur eta nerabeen aisialdiko begirale izateko doako ikastaro bat eskainiko da. Egitasmoa azken aurrekontu parte hartzaileen barnean boto gehien jaso zituen proposamenetako bat izan zen.

Hezkide Eskolak emango du ikastaroa, eta, bukatzen denean, ikasleek haur eta nerabeen aisialdiko begirale izateko titulua eskuratuko dute, Eusko Jaurlaritzak homologatutakoa. Ikastaroan izena emateko, interesdunek 2022ko maiatzaren 22a baino lehen 18 urte betetakoak eta 31 urte bete gabekoak izan beharko dute, eta 2021eko irailaren 1erako Irunen erroldatuta egon beharko dute.

Haur eta nerabeen begirale ikastaroak 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktikoko iraupena izango du. Atal teorikoa 2021eko urriaren 16an hasiko da eta 2022ko maiatzaren 22an bukatuko da. Ikastaroa egin ahal izateko, gutxienez 10 pertsonak eman beharko dute izena, eta 24 plaza egongo dira gehienez. Ikastaroa Martindozenea gaztelekuan emango da larunbatetan eta guztiz doakoa izango da.

Santi Jiménez Gazteriako ordezkariak nabarmendu nahi izan du horrelako ekimenak garrantzitsuak direla "Irungo gazteak lanean has daitezen". Gazteriako ordezkariaren hitzetan, "talde horiek asoziatiboak eta hezigarriak dira, gure gazteen artean komunikazioa, lankidetza eta balio-transmisioa sustatzen baitituzte".

Ikastaroaren helburuak
Ikastaroak hainbat helburu ditu. Batetik, Irungo gazteei aisialdiaren esparruan lan egiteko gaikuntza ematea eta oso lan merkatu espezifiko batean sartzeko aukera eskaintzea. Izan ere, askotan udalekuetan, kanpamentuetan, aterpeetan... hasten da lan merkatuarekiko harremana. Bestetik, hiriko gazte elkarteen sarea sendotzeko prestakuntza estrategiak jartzea martxan, gazte elkarteek hiriko haur eta gazteei balio sozialak transmititzen dizkieten aldetik.

Era berean, aisialdiaren, hezkuntza ez-formalaren eta hezkuntza informalaren esparruan gazteen arteko esperientzia trukea sustatu nahi da. Gainera, Irungo gazteek elkarteetako boluntario lanean, gazte ekimenetan eta berentzako interes estrategikoa duten beste programa batzuetan parte har dezaten bultzatzen da.

Izen-ematea
Interesdunek irailaren 10etik 16ra bitartean eman dezakete izena, bi egun horiek barne, Irungo Udalaren webgunean. Zozketan parte hartzeko onartuak direnen zerrenda Igazte bulegoan jarriko da jendaurrean, CBAn, irailaren 21ean eta 22an; era berean, 010 zenbakira deituta kontsultatu ahalko da, 08:00etatik 14:00etara bitartean. Zozketa irailaren 23an izango da, 10:00etan, jendaurrean, eta emaitzak hilaren 27an argitaratuko dira. Eskabide kopurua txikiagoa bada toki kopurua baino, ez da egingo zozketarik, eta izen ematea behin betikotzat hartuko da.

Behin zozketa eginda, mezu elektroniko bat bidaliko zaie tokia egokitu zaien onuradunei, izena emateko orria bete dezaten, eta urriaren 8rako entregatu beharko dute, Igazte bulegoan. Dena den, informazio guztia Irungo Udalaren webgunean kontsultatu ahalko da.

Ikasturte berri honetan Irunen euskara ikasteko aukera anitz eskainiko ditu Irungo Udal Euskaltegiak

Udal euskaltegiak 2021-2022 ikasturteko matrikulazio epea zabalik izango du irailaren 1etik 17ra. Ordu kopuru desberdineko ikastaroak eskainiko dira urritik ekainera eta langabezia egoeran daudenentzat LANNAHI ikastaro trinkoak.

Aurrez aurreko ikastaroak eskainiko dira, eta ikasle eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko dira. Izena emandako ikasle kopuruaren arabera, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira (eskolak txandaka ematea...).

Urritik ekainerako ikastaroak urriaren 1ean hasi eta ekainaren 23an bukatuko dira. Modulazio desberdineko ikastaroak eskainiko dira (egunero 2, 3 edo 4 orduko ikastaroak; astean 2, 3, 4 edo 5 eguneko ikastaroak ordutegi desberdinean, larunbat goizetan B2 eta C1 prestatzeko ikastaroa, merkatari/guraso eta erretiratuentzako xede bereziko ikastaroak...). Ordutegi eskaintza zabala dago. Ikastaroen prezioa moduluaren araberakoa da, baina asistentzia eta aprobetxamendu ona duten ikasleek euskara ikasteko udalak ematen dituen bekak eskuratu ahal izango dituzte. Beka honen bitartez matrikula prezioaren %100a arte jaso dezake ikasleak.

LANNAHI
Udalak, gainera, urriaren 1etik abenduaren 23ra ikastaro trinkoak debalde eskaintzen dizkie langabezia egoeran dauden ikasleei, % 50 edo gehiagoko ABEEn (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea) dauden ikasleei, edo lanean egonda ere, gehienez % 50eko lanaldia dutenei LANNAHI programaren bitartez. Programa hau Euskara Arloak martxan jarri zuen euskara ikasteko ahaleginean ari diren edo aritu daitezkeen irundarrentzako. Ikastaro hauek goizez egunero 4 ordukoak edo arratsaldez egunero 3 ordukoak izaten dira.

Udal euskaltegiko ikastaroetan interesa duten pertsonek, hala nola LANNAHI programan interesa dutenek, irailaren 1etik 17ra eman dezakete izena. Dena den, azken hauek izenematea internetez egin beharko dute HAZ24h zerbitzuaren bitartez (www.irun.org/sac) Irun Txartela edo beste ziurtagiri elektroniko batzuk erabiliz (NA elektronikoa, IZENPE txartela..). Hala nahi badute, HAZeko autozerbitzu terminalak erabili ahal izango dituzte honetarako (San Martzial kalea, 2).

Gainerako ikastaroetan interesa duten pertsonek aipatutako egunetan, irailaren 1etik 17ra, Udal euskaltegira (Urdanibia plaza, 5) hurbildu behar dute bulego ordutegian 10:30-13:30 goizez eta 16:30-19:00 arratsaldez. Batzuk zein besteek mailaketa proba egin behar dute udal euskaltegian irailaren 1etik 17ra, 10:30tatik 13:30tara goizez eta 16:30tatik 19:00tara arratsaldez.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Maria Angeles Dominguez, Amaita:

"Kontuan izan behar da adoptatzea ez dela animalia bat oparitzea eta kito"

Amaita maskota dendak 30 urte daramatza hiriko animalien osasuna zaintzen. Abuztuaren 17a Etxerik Gabeko Animalien Nazioarteko Eguna da, animalia-denda honetako langileentzat esanahi berezia duen eguna. Dendan jasotako etxerik gabeko animalia guztientzako etxea aurkitzen saiatzen dira Amaitan. Maria Angeles Dominguezek azaldu du nola kudeatzen diren Amaitan adopzioak.

Etxerik gabeko animalien nazioarteko eguna garrantzitsua da zuentzat?
Bai eta, ez egun hori bakarrik, guretzako urteko gainontzeko 364 egunak dira garrantzitsuak. Urte batean kaleko 150 katurentzako edo baserrietan jaiotako 30-40 txakurrei etxea aurkitzeko gai gara, zorionez, jaiotzen direnean jada ez baititutzte hiltzen. Horrelako kasuetan jendea gurekin harremanetan jartzen da, etxe bat aurkitu diezaiegun. Horretaz gain, jendeak kaletik aurkitzen dituen txoritxoak ekarri ohi dizkigu eta, behar dituzten sendaketak egin eta zaintzak eman ostean, beren habitatera itzul daitezen prestatzen ditugu. Lan hori oso garrantzitsua dela uste dugu. Hala ere, egia da helburu bera duten elkarte asko daudela.

Oraindik uda eta oporraldi garaietan animalien abandonuak areagotzen direla nabaritzen duzue?
Ez, nire ustez gizartea asko aldatzen ari da eta, beraz, animaliak zaintzeko modua eraldatu dela uste dut. Animalia bat nahi duzunean ondorio on eta txar guztiekin maite duzu. Udan dendan animalia txikientzako hotela dugu eta jendeak horrelako zerbitzuak geroz eta gehiago erabiltzen dituela nabaritu dugu oporretan animaliak behar bezala zainduta egon daitezen. Batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta animalia gutxiago abandonatzen dira.

Jendea jabetzen al da animalia bat edukitzeak dakarren erantzukizunaz?
Zorionez gehiengoa bai. Animalia bat adoptatzea erabakitzen denean jabeek beren gain hartzen dute adopzioak dakarren erantzukizuna, egiten ari direnaren garrantzia ezagutzen baitute. Beti dago ergelen bat, baina zorionez dena asko aldatzen ari da, gizartea gero eta konprometituagoa dago eta arduratsuagoa da animaliei dagokienez.

Adopzio bat egiteko, oso garrantzitsua da Amaita bezalako dendetatik egiten duzuen kontzientziazio-lana?
Adopzioan ematen ditugun animaliek gutxienez 20-25 egun igarotzen dituzte gurekin, animalia horiek adopzioan eman ahal izateko osasun-berme guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko. Gurekin dauden egun horietan, adoptatzailea bere maskota bisitatzera dator eta harremana nolakoa den ikusten dugu. Bisita horiek baliatzen ditugu animalien jabea kontzientiatzeko eta animaliak beharko dituen zaintza-lanak azaltzeko, bai eta parasitoak kentzeko, txertoak jartzeko eta gainerako protokoloez hitz egiteko ere. Arazoren bat hautematen badugu, pertsona horrekin hitz egiten dugu eta animalia ez ematea erabaki dugula azaltzen diogu.

Amaitatik animalien erosketaren aurrean, adopzioa sustatzeko ahalegintzen zarete?
Bai, noski. Zoritxarrez, azken urteotan sortzen ari garen gizartean gero eta pertsona gehiago bakarrik bizi dira, eta animalia batek pertsona horiek ateratzen eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzen laguntzen du. Beraz, adoptatzeak abantaila gehiago ditu eragozpenak baino.

Jende askok ez daki, baina adoptatzeak ere baditu gastuak, ezta?
Kontuan izan behar da adoptatzea ez dela animalia bat oparitzea eta kito. Animaliak gauza batzuk behar ditu, eta lehenengo urtean behintzat txakurkume edo katakume horri jarraipena egitea gustatzen zaigu. Horretarako, oso tematiak gara, eta ondo txertatuta eta parasitorik gabe daudela kontrolatzen dugu. Honezkero, nahi dutena esan diezagukete, baina adoptatzeak zenbait gastu eragiten dituela jakin behar da.

Zein da adopzio bat gauzatzeko jarraitzen duzuen prozedura?
Lehenik eta behin, gurekin harremanetan jarri behar dira, aukerak zeintzuk diren ikusteko; izan ere, pertsona batzuek uste dute animaliak egiteko makina bat dugula. Askok oso ezaugarri zehatzak eskatzen dituzte animalia bat aukeratzeko orduan, baina hau ez da neurrira egindako jaka bat. Guk ezin ditugu % 100ean bermatu eskatzen dizkiguten gauza horiek guztiak, baina ahal dugun informazio guztia ematen saiatzen gara.

Nola iristen dira zuengana adopzioan ematen dituzuen animaliak?
Normalean, kaleko katuek erditu ohi dituzten katakumeak izan ohi ditugu, eta jendeak aurkitzen dituenean guregana ekarri ohi ditu. Nebak bezalako taldeekin elkarlanean aritzen gara ahal dugun katu guztiak esterilizatzen laguntzeko, nahiz eta beti agertzen den baten bat katutxoekin. Denon artean egiten dugun lana da.

30 urtez animaliekin lan egin ondoren, nabaritzen al da esperientzia?
30 urte bizitza oso bat da eta asko gustatu behar zaizu, hemen lan egiteak urteko 365 egunetan lan egitea esan nahi duelako. Ez dago erabateko deskonexio-egunik, ez Gabonik, ez ezer. Animaliek jan egin behar dute, eta berdin zaindu behar dira. Gainera, orain klinikarekin beti ditugu larrialdiak edo ospitaleratutako animaliaren bat.

Konpromiso horren erakusgarri da duela gutxi Beti Lagun programan parte hartu izana. Nola baloratzen duzue esperientzia?
Programa honen bidez, etxerik gabeko pertsonen txakurrei laguntzeko aukera izan dugu. Urgentziazko kirurgia bat egin behar izan genuen txakurtxoari ebakuntza egin behar zitzaiolako obarioetan infekzio bat zeukalako. Gure albaitariak konprometituta daude gaiarekin, gu bezala. Ebakuntza gure ordutegitik kanpo egin zen eta kito, ez dago beste aukerarik.

Etorkizunean etxerik gabeko animaliak ez dauden gizarte bat posible izango dela uste duzue?
Uste dut atzetik datozen belaunaldiak, zorionez, gu baino hobeak direla. Gure ondorengoak besteekiko errespetuan eta maitasunean hezten baditugu, etorkizuna oso ona da.

Ametsa Txiki Abesbatzak kantuarekiko ilusioa berreskuratzea du helburu datorren ikasturtean

"Mirari antzeko zerbait izan zen haur guztiak berriro kontzertu batean elkarrekin abesten ikustea"

Leticia Vergara, Ametsa Txiki Abesbatzako zuzendaria

"Txikitatik musika probatzen badute, errazagoa izango da handitzerakoan abesbatzan jarraitu nahi izatea"

Javier Guerrico, Ametsa Abesbatzako zuzendariordea

Ametsa Txiki Abesbatzak aurreko ikasturtea goitik behera baldintzatu duten oztopoei aurre egiteko bidea topatu du. Abeslari txikientzat ez da lan erraza izan maskara entsegu birtualekin tartekatzea, baina hala ere, ez dute etenik izan. Izan ere, ikasturte berria zalantzaz josita aurkezten bada ere, Leticia Vergara Ametsa Txiki Abesbatzako zuzendariak zailtasunak ilusioarekin gainditzeko prestutasuna adierazi du.

2020ko martxoan bi hilabetez mundua gelditu egin zen, eta urte bereko irailean Ametsa Abesbatzak ohiko entsegu-erritmoa berreskuratzea erabaki zuen. Azaroan, ordea, pandemiaren zabalpena eteteko murriztapenek abesbatzen jarduera ia guztiz etetea lortu zuten, maiatzeko erdialdera arte aurrez aurreko ekintzak berreskuratzeko aukera eman zitzaien arte.

Bien bitartean, kantu irakasleek, Leticia Vergarak adibidez, jarduera erabat geldiaraztea saihesteko lan egin dute. Ohiko entseguak egitea ezinezkoa izan den bitartean urrutitik gidatutako entseguak mantendu dira, teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak baliatuta. Ametsa Txiki Abesbatzako zuzendariak azaldu duenez, "astero elkar ikusteko eta ohiko entsegu ordutegiarekin jarraitzeko aukera izan dugu". Leticia Vergarak gehitu duenez, "uneoro ilusioa mantentzen saiatu gara, haurrek musika egiteko zuten gogoa bideratzeko". Javier Guerrico koruko zuzendaritza batzordeko kideak Leticiak hilabete zail hauetan egindako ahalegina aitortu du.

Normaltasuna berreskuratzeko urratsak
Etenik gabeko lan horren emaitzetako bat ekaineko erdialdean grabatutako kontzertu pedagogikoak dira. Aurten ezinezkoa izan da Amaia antzokian hiriko ikastetxeetako haurrak biltzea haien ikaskideek urtean zehar ikasitakoa erakutsi ziezaieten. Hala ere, kontzertu birtual horrek aurreko hilabeteetan etxean abeslari txikiek egindako lanak zerbaitetarako balio duela erakutsi du. Leticia Vergara abesbatzako zuzendariak azaldu duenez, "entseguetara itzuli ginenean kontzertu bat grabatzeko moduan ginela egiaztatu genuen, gure kalitate goreneko unean egon ez arren". Beraz, sei hilabetez benetako entsegurik egiteko aukerarik izan ez arren, Leticia Vergarak onartu du abesbatzarentzat oso garrantzitsua izan dela kontzertu pedagogikoek azkenean emandako emaitza ikustea.

Udaran Ametsa abesbatzako kantari txikiek abesten jarraitzeko hainbat aukera izan dituzte. Uztailean udalekuak antolatu ziren eta, elkarteko kideez gainera, aste batzuez taldera batu ziren abeslari berriek kantatzen ikastea nolakoa den probatu dute. Bestetik, uztailaren 9an Ametsa Txikik ordubeteko kontzertua eskaini zuen Junkaleko Andre Mariaren elizan. Leticia Vergararen hitzetan, "mirari antzeko zerbait izan zen haur guztiak berriro kontzertu batean elkarrekin abesten ikustea". Ametsa Txikiko zuzendariak jendea kontzertu bat entzuteko irrikatzen ikusi zuen eta ilusio hori abesbatzarentzat pizgarri ezinbestekoa dela azaldu du.

Apurka-apurka Ametsa Txiki abesbatzaren ohiko jarduera berreskuratzen ari da, baina oraindik lana dago egiteko. Leticia Vergara irakasleak onartu duenez, "bakoitzak bere etxean abestiak ikasi ditu eta, errepertorio guztia ikasteko gai izan garen arren, ez da gauza bera". Izan ere, soinuaren lanketa abeslari guztiek elkarrekin egin beharreko zeregina da. "Soinua instrumentu bezala lantzen dugu eta bakoitzak etxean bere instrumentu propioa landu duen arren, ezinezkoa da talde lanketa osoa egitea", gaineratu du Vergara zuzendariak.

Beti segurtasuna lehenetsiz
Batera kantatzeko eta kontzertuak berriro eskaintzeko gogoa handia bada ere, abesbatzak uneoro abeslarien segurtasuna lehenetsi du. Unean uneko protokoloak eta murriztapen neurriak errespetatu dira eta zeregin horretan oso lagungarria izan da Ametsa Abesbatzak Santiago auzoan duen egoitzaren tamaina handia; abeslarien artean 2 metroko distantzia gordetzea ahalbidetu du, lokaleko bi ateak lokaleko aireztapenean lagungarri suertatu dira eta abeslariek FFP2 maskarak erabili dituzte kantatzeko.

Javier Guerricok adierazi duenez, "protokoloetan aurreikusitako neurri guztiak goitik behera bete ditugu eta zenbait unetan are neurri zorrotzagoak hartzea erabaki dugu". Murriztapen neurri zorrotzek fruituak eman dituztela dirudi, izan ere momentura arte abesbatzaren barruan ez da kutsatze kasurik atzeman. Murriztapen neurriez gainera, abesbatzako kide eta senideen jarrera eredugarria izan dela nabarmendu du Leticia Vergarak eta abesbatzatik proposatutako edozein jarduera beso zabalik jaso izana eskertu du.

Leticia Vergarak adierazi duenez, "maskararekin lan egitea oso zaila da, ahotsa erabat aldatzen baita". Era berean, maskara erabiltzen jarraitzea beharrezkoa izango den bitartean abesbatzaren kalitatea bilatzea ia ezinezkoa izango dela aurreratu du. Beraz, momentuz behintzat, kalitatearen ordez, abesbatzan haurren erosotasunaren eta zoriontasunaren aldeko apustua egitea erabaki du. Horrela, haurrek etxean edo haien ingurunean pandemiarekin lotutako arazoren bat izan dutenean, koroan zeuden bitartean pozik egon zitezen ahalegin berezia egin duela azaldu du Leticiak, ondoren ilusio hori ingurukoei kutsatu ziezaieten.

Erronka berriak
Ametsa abesbatzan etxeko abeslari txikienentzako lekua dute. Bost eta zortzi urte artean dituztenean Ametsa Txiki Txikia taldean sartzen dira, handitzerako Ametsa Txikia izeneko taldera salto egiteko. Hastear den ikasturtean, berriz, tailerrean haur txiki-txikiak izango dituzte, hau da, 3 urte arteko haurrak, musikarako grina bizitzako lehen urteetatik erakusteko. Leticia Vergararen ustetan abesbatzan izena eman eta kantatzea zer den probatzea da urratsik zailena, hortik aurrera dena emana dator eta. Javier Guerrico Ametsako zuzendariordearen hitzetan, "txikitatik musika probatzen badute, errazagoa izango da handitzerakoan abesbatzan jarraitu nahi izatea".

Ikasturte berriaren atarian Javier Guerricok adierazi duenez, "ikasturte hasiera zalantzez beterik aurkezten zaigun arren, argi eta garbi dugu datorrenarekin aurrera egingo dugula". Ikasturte hasierara begira, Ametsa Abesbatzak 3 erronka nagusi dituela azaldu du Leticia Vergarak. Batetik, arazorik ez izatea ikasturtearen hasieratik amaierara arte, eta kurtsoa normaltasunez gauzatu ahal izatea. Bestetik, arazoak alde batera utzita, abeslarien ilusioa mantentzea. Azkenik, abeslari berri gehiago edukitzea gustatuko litzaieke, Irungo haurrek Ametsa Txikin ondo pasatu dezaketela jakin dezaten.

Studio 21 akademia prest dago ikasturte berriari hasiera emateko

Studio 21 dantza akademiak Kizomba, Saltsa eta Bachata bezalako dantza estiloetan formazioa eskaintzen du. Ikastaroak irailaren 19an, igandean, hasiko dira. Studio 21ek dantza eta ordutegi eskaintza zabala prestatu du 2021-2022 ikasturterako, adin desberdinetako pertsonei zuzenduta. Ikastaroetan izena emateko 653570507 telefono zenbakira deitu beharko da.

Zer eskaintzen duzue Studio 21en?
Studio 21en, Kizomba, Saltsa eta Bachata bezalako dantza sozialetan formazioa eskaintzen dugu, publiko helduarentzat. Bikoteko dantzak izan arren, ez da beharrezkoa bikotean izena ematea, beraz, edonork eman dezake izena banaka, betiere dagokion taldean eskatzen den maila errespetatuz. Gainera, haurrentzako dantzak eskaintzen ditugu (Funny Dance eta Zumba Kids) 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzat.

Azkenik, Saltsaren zein Kizombaren "Nesken Estiloa", publiko gazte eta helduari zuzenduta. Haurren dantzak eta nesken estiloko eskolak modu askean dantzatzen dira, gure psikomotrizitatea, musika-entzumena, dantza-estiloa eta autoestimua hobetzen laguntzen diguten koreografiak eginez eta lotsa kenduz, gorputzaren bitartez adierazten ikasteko. Ikastaro horietarako ez da dantza-mailarik eskatzen, bakoitzak bere kasa lan egiten baitu.

Zein izan da orain arte zuen ibilbidea?
Gure irakasle guztiek 10 urte baino gehiagoko esperientzia dute. Gu, Kike eta Pepa, eskolako zuzendari eta irakasleak, KIZOMBAn espezializatuta gaude, Angolan jaio eta 80ko hamarkadatik Europan dantzatzen den bikoteko dantza sozialean. Dantza sentsuala eta teknikoa da aldi berean, ez du ahalegin fisiko handirik eskatzen, eta asebetetze handia eskaintzen du konfiantzari, autoestimuari eta soziabilitateari dagokionez.

Kizombako irakasle gisa 10 urte baino gehiago daramatzagu eta ospe handia dugu bai estatuan bai nazioartean. Nazioarteko kongresuetan tailerrak eman ditugu Frantzian, Portugalen, Espainian, Ukrainian, Italian... Horretaz gain, modu iraunkorrean ikastaroak eta tailerrak ematen ditugu Studio 21 gure eskolan, baita Donostiako, Bilboko, Gasteizko eta Biarritzeko beste eskola batzuetan ere.

Nolakoak dira Studio 21en instalazioak?
Gure instalazioak Labeltze kaleko 21. zenbakian daude, Katea auzoan, Café Irunetik oso gertu. Kafetegi gure lokaletik gertu dagoenez, egokia da igandetan eskolen ondoren bertara dantzatzera joateko. Gainera, aparkatzeko oso gune ona dugu, eta ondo komunikatuta dago Euskotren eta aldirietako trenarekin.

Zer egin behar da ikastaroetan izena emateko?
Eskoletan izena emateko 653570507 telefono-zenbakira deitzea beharrezkoa da. Gainera, irailean izena ematen baduzu, matrikula doakoa da.

Hileko ikastaroen prezioak honakoak dira: 30 euro ordubetekoak, 35 asteburukoak eta 40 ordu eta erdikoak dira. Ikasle berrientzako matrikulak 15 eurokoa izango da, baina irailean zehar izena ematen dutenentzako doakoa izango da. Arratsaldeko taldeetan bigarren jardueratik aurrera, ikastaro guztiek 5 euroko deskontua izango dute. Gainera, proba-eskolek 10 euroko prezioa izango dute, eta, azkenean akademian izena emanez gero, ordaindutako probaren zenbatekoa hileko kuotatik deskontatuko da.

"Ikastaroak irailaren 19an, igandean, hasiko dira"

"Irailean zehar izena ematen dutenentzako matrikula doakoa izango da"

Kepa Ordoki MHB elkarteak Behe Bidasoako matxinadaren 85. urteurrena gogoratuko du

2021eko irailaren 5ean, 85 urte beteko dira faxistek Irun eta Hondarribia armekin eta indarkeriaz hartu zituztela. Egun horietan jazotakoek eragin zuzena izan zuten 40 urte iraun zuen erregimen diktatorialean eta egungo gizartearen oinarrietan. Urteurrena oroitarazi eta oroimena aldarrikatzeko intentzioarekin, Kepa Ordoki – Memoria Historikoa Bidasoan elkarteak hainbat jarduera antolatu ditu.

85. urteurrenean, Kepa Ordoki – Memoria Historikoa Bidasoan elkarteak, ekintza ezberdinen bitartez, 1936ko uda bizi zuen gizarte zibilari hitza emateko saiakera gauzatuko du. Emakumeak jasandako errepresioa "Izan zirenak eta izango direnak gogoan" webgunearen bitartez azalduko da. Defentsara etorri ziren bolondres internazionalisten berri emango da ere, eta guzti hau errekonozimendu publiko baten bitartez borobilduko da irailaren 5ean, erorketaren 85. urteurrenaren egunean bertan.

Oroimena aldarrikatzeko, irailaren 5ean, faxistek Irun eta Hondarribia armekin guztiz hartu zuten egunaren 85. urteurrenean, ekitaldi publikoa egingo da Behobia auzoko zubi zaharrean. Oroimen ekitaldi publikoa eguerdiko 12:00etan hasiko da. Bertatik joan ziren faxismotik ihesi hamarnaka errefuxiatu. Bertan ere, inguruko Punttako borrokaldiak oroitaraziko dira internazionalistei men eginez eta ozen aldarrikatuko dira "Izan zirenak eta izango direnak gogoan" webgunean barnebiltzen diren emakumeak.

Peli Lekuona Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan elkarteko idazkariak, garai hartan eskualdean bizi izan zen egoeraren adibide bat jarriz gogoratu du eskualdean egon ziren borrokak ez zirela edonolakoak izan. Ameriketako Estatu Batuetako ordezkari diplomatikoak, Hendaiatik, Franklin D. Roosevelt presidenteari idatzi zion borrokak "epikoak" izan zirela. "Inoiz ez da izan halako heroitasunik. Arrantzaleak, meatzariak eta nekazariak, armetan trebatu gabe, galera hilgarriekin errefusatu zuten Atzerriko Legio entrenatua sei egunez".

Izan zirenak eta izango direnak gogoan
"Izan zirenak eta izango direnak" proiektua dagoeneko ibilbide bat duen jarduna da, 2019. urtean sortu baitzuen elkarteak webgunea. Izanzirenak.eus webgunearen bitartez, emakumeek Estatu kolpean zein frankismoan zehar jasandako errepresioari leku egiten zaio. Bertan, Behe Bidasoan atxilotuak, fusilatuak, erbesteratzera behartuak eta susmagarritzat jo ziren 146 emakumeren jazoerak gorde dira. Azken hiru urteetan, ikerketa lanak sakondu dira eta horren emaitza da webguneak izango duen zabalpena. Hurrengo hilabeteetan, beste 200 emakumeren gertaerak jasoko dira. Horien artean dago Faustina Ruiz García. Galdames ontzian atxilotu eta faxistek fusilatu zuten emakume bakarra izan zen. Baita ere, Consolación Mangas, eskualdea defendatzen, frontean hil zen emakumea. Edo Micaela Aizpiolea La Roseraieko ospitalean artatu zuten errefuxiatu irundarra, besteak beste.

Azken urteetan zehar egindako ikerketaren emaitzarekin argi ikus daiteke emakumeak eskualdean jasan zuen errepresio mota orokortuena erbestea izan zela. "Milaka emakume irten ziren Behobia eta Avenida zubietatik", azaldu du Peli Lekuonak, gogoratuz haietako asko ez zirela inoiz itzuli beren jaioterrira.

"Historia de nuestras vacaciones del año 1936"
Era berean, Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan elkarteak Ricardo Cuenderen kontakizunak liburuxka batean argitaratuko ditu. Ricardo Cuende irundarrak Errioxan izan zuen Estatu kolpearen berri. Opor gisa, mendiak igotzera joan zen Pablo Lombanarekin. Matxinadaren berri zutela, etxerantz, Irunera, irten ziren. Hala ere, ezin izan zuten eskualdera etorri eta ondorioz Iturenen geratu ziren. Familiarekin harremana guztiz galduta, Iturengo udal idazkariak Mendaur mendian atxilotu zituen. Bi Guardia Zibilek Dantxarineara eraman zituzten galdekatuak izateko. Bertan jakin zuten atxiloketa Bidasoan gauzaturiko bi faxisten atxiloketaren ondorio zela, aurrez atxilotutako bi faxistei egin behar zitzaien gauza bera Lombana eta Cuenderi egiteko asmoarekin. Hainbat astez atxilotuta egon ziren Iruñeko erreketeen koartel nagusian. 1936ko irailean askatu zituzten, hiru asteko egonaldia burutu zuten Iturenen eta, Irunera itzultzean, berriz atxilotu zituzten. Espetxealdia egun Irungo Udaletxeko goiko aldean dauden bulegoetan igaro zuten, ia urtebeteko egonaldia osatuz.

Senideen bitartez, idatziak eskuratu ostean, Kepa Ordoki MHB elkarteko kideak Ricardo Cuendek atxiloaldia nolakoa izan zen kontatzen duten testuak maketatzeaz arduratu da. Peli Lekuonak elkarteak argitalpena publiko egiteko duen asmoa adierazi du. Kepa Ordoki elkarteko idazkariak aurreratu du argitalpena eskuz zein internet bidez eskuragarri egongo dela. Horretarako, "Historia de nuestras vacaciones del año 1936" kontakizuna jasotzen duen liburuxka irailaren 3an aurkeztuko da, Palmera Montero gunean, 18:00etan. Liburua gazteleraz idatzita dago, izan ere, elkartearen asmoa Ricardo Cuendek idatzitakoa hitzez hitz argitaratzea da, inolako aldaketarik egin gabe. Dena den, irakurleek liburuaren hasieran, euskaraz, argitalpenari buruzko azalpen orokor bat topatuko dute.

Webgunea
Kepaordokimhb.eus webgunean, 85 urteen baitako jarduerak laburbiltzen dituen atal berezitua egongo da. Baita ere, eskualdearen defentsan, ezinbestekoak izan ziren internazionalistei buruzko artikulua argitaratuko du elkarteak.

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

2020ko Olinpiar Jokoetako brontzezko domina irundarraren kronika

Uda lanpetua izan du Julen Aginagaldek. Olinpiar Jokoez gain, Aginagale Campusean buru-belarri ibili baita lanean. Dena den, esfortzuak saria izan du, Tokiotik brontzezko domina olinpikoa besapean duela itzuli baita. Julen Aginagaldek pandemiak baldintzatutako Olinpiar Jokoetan parte hartzearen esperientzia nolakoa izan den kontatu du.

2021eko udaran ohi baino okupatuago egon zara?
Bai, egia esan, udara guztia kanpoan eman dut. Liga amaitu genuenean pare bat aste libre izan nituen, baina topera entrenatzen jarraitu nuen. Olinpiaden ostean etxera itzuli nintzen lehen astean apur bat nahastuta ibili nintzen. Ondoren eskubaloi campusean lanean ibili naiz eta pare bat astez deskantsatu ostean, berriro lanera itzuli naiz.

Jokalarientzat erraza da txipa egun batetik bestera aldatzea?
Gutxienez ohitura daukagu. Horrelako zerbait egin behar dugun lehenengo aldia balitz, desberdina izango litzateke. Jada hirugarren edizioa da, oso pozik gaude eta primeran pasatzen dugu.

Kostata domina etxera ekartzea lortu duzu. Esanahi berezia duen domina, ezta?
Bai, aspalditik buruan geneukan zerbait da. Domina eskuratzeko sailkapenetik kanpo geratu ginenetik talde honek helburu bakarra zeukala esango nuke, hau da, domina bat irabaztea. Beraz, dominak jende askoren ibilbidea borobiltzea lortu du. Sailkapena nola geratu den begiratu besterik ez dago: Frantzia, Danimarka eta Espainia. Izan ere, herrialde horiek gara azken urteetan garaipenengatik borrokan egon garenak. Dena den, guk gurea borrokatu dugu eta txapelketaren bat kentzea lortu dugu. Azken urteetako lanaren isla polita dela uste dut, podiumean sartzea lortu dugu.

Zergatik da bereziago olinpiar jokoen domina beste domina batzuekin alderatuta?
Kirolean dagoen lehiaketarik garrantzitsuena Olinpiar Jokoak dira. Olinpiar hirian minutu batez sartuz gero laster konturatuko zinateke han dagoen giroa nolakoa den, izan ere, bertan denak berdinak gara. Oso kirolari famatuek eta ezezagunak direnek elkarrekin jan eta lo egiten dute.

Londres eta Tokioko jokoekin alderatuta, oso desberdinak izan dira elkarrengandik?
Bai, oso. Orduan gazteagoak ginen eta orain zaharragoak izanda ere, uste dut askori momentu onean harrapatu gaituela. Orain arte Europan lortutako tituluek horixe erakutsi dute eta ametsa bete dugu azkenean.

Nolakoa izan da Olinpiar hirian beste kirolariekin izandako harremana?
Londresen askoz jende gehiago ikusteko aukera izan nuen. Hemen, aldiz, gure egunerokoan gehiago kontzentratuta ibili gara eta ez dugu hainbeste elkartzeko aukerarik izan. Gure delegaziokoekin izan dugu harreman gehien, hotelean elkarrekin geundelako. Eraikin berean bizita, leku batean edo bestean erraza da edozeinekin aurkitzea. Bakoitzak bere txapelketa egunak dauzka eta han gauden bitartean egun bakoitzean noren txanda den jakin ohi dugu. Gure gelan telebista txikitxo bat baino ez daukagu, hortaz, telebistako kanaletan gainontzeko kirolak lehiatzen ikusteko aukera dugu. Beraz, inguruan dauzkagun pertsonen txapelketak eta lorpenak gertutik jarraitzeko ahalegina egiten dugu. Dominak edo bestelako lorpenak daudenean segituan jakin ohi dugu eta ahal den moduan zoriontzen edo ospatzen saiatzen gara. Azken batean, giro polita sortzen da.

Olinpiadetan kirolarien irudiak ikusi dira, urrezkoak ez diren dominak mespretxatzen. Zein da zure iritzia?
Argi dago txapelketan edozein postura iristeak errespetua merezi duela. Sekulako errespetu falta iruditzen zait domina kentzearena. Mespretxuzko keinu bat da bai irabazlearekiko, bai txapelketa jolastu duenarekiko eta baita txapelketa jokatzeko sailkatzea lortu ez duenarekiko. Olinpiar Jokoak bezalako txapelketa batean oso garrantzitsua da bertan egon ahal izatea, parte hartzea, garaipena eskuratu nahi izatea eta disfrutatzea. Domina guztiak garrantzitsuak dira, urrezkoa, zilarrezkoa edo brontzekoa izatea kontuan hartu gabe.

Aurten Tokion Irungo hainbat kirolari eta entrenatzaile elkartu zarete. Nolakoa izan da esperientzia?
Bai, egun batean guztiok elkartzeko aukera izan genuen. Ander Elosegi arduratu zen Tokion irundar guztiak elkartzeaz. Oso une berezia izan zen.

Olinpiadak alde batera utzita, Artalekura itzuli zara. Nola ikusten duzu taldea denboraldi hasieran?
Oso ondo. Egia esan, polita da beti denboraldi hasieran aurpegi berriekin elkartzea. Espero dut jokalari berriak laster gure jokora egokitzea. Denboraldi zaila izango dela badakigu, partidu asko izango baitugu. Hala ere, ilusioz jokatzen jarraituko dugu eta horrek emaitza onak ekarriko dizkigula uste dut.

Aurpegi gazteez osatutako taldea izango da aurtengoa, beraz, Bidasoak etorkizuna ziurtatuta du?
Momentu polit baten erdian gaudela esango nuke. Covid-19arekin une latz asko bizi izan ditugu, bai kirolean zein ekonomikoki. Hortaz, klubean aurpegi gazteak izatea garrantzitsua iruditzen zait bai taldearentzat zein klubarentzat. Orain arte bezala jarraitzea espero dugu eta denboraldi berria emaitza onez beterik etorri dadila.

Kurtso berria

Auntxa Trikitixa eskola
TRIKITIXA eta PANDEROA
• 6 urtetatik aurrerako haur eta helduentzat zuzenduta
• Irakasteko metodo desberdinak: Zenbakiz osatutakoa, aurrez-aurre, solfeoz
943 618 839 - 615 790 510 - info@auntxatrikitieskola.com
Aldabe Mendia Kalea 31, IRUN - Elizalde Herri Eskola, Manuel Lekuona 5, OIARTZUN

20 urte bete dira Azeri Arku Tiroketa klubaren sorreratik

Azeri Arku Tiroketa klubak 20 urte bete ditu. Egoitza fisikoa Hondarribian kokatuta badu ere, Azeri klubak eskualde osoko jaurtitzaileak ditu. 20 urteko ibilbide honetan zehar elkarteak arku-tiroarekiko grina San Telmoko zelaitik haratago zabaltzea lortu du. 2021eko irailean, gertakari eta bizipen horiek guztiak laburtzeko asmoz, elkarteak liburu bat kaleratuko du.

Kluba Patxi Goikoetxea eta José Luis Goikoetxea neben ahalegin eta konpromisoari esker sortu zen. Nebak 1996. urtean hasi ziren arku-tiroa praktikatzen, Patxi Goikoetxeak Julen semearekin Costa Bravako kanpin batean kirola lehen aldiz probatu ostean. Hondarribiko itsasargian, hondartzan edo Guadalupeko zelaietan arkua estreinatu ostean, Donostiako Diarco klubean hasi zuten beren kirol ibilbidea, beharrezko oinarri teknikoak barneratu eta lehen txapelketetan parte hartu zutelarik.

2000. urtean Hondarribian tiroketa eremu bat sortzeko asmoa errealitate bihurtzeko prozesua hasi zuten. Azeri Ehiza eta Tiro Elkartearen bitartez San Telmoko tiro-eremuaren alboan kokatutako kantoi-zabortegiak arku-tiroaren zelai bat sortzeko baldintza onargarriak betetzen zituela jakin zuten. Horrela, Azeri ETEren barnean arku-tiroaren atala sortu zen, elkarte erabat independentea eratu aurretik. Zehazki, 2001eko uztailaren 17ko ohiko batzarrean klubaren eraketaren konstituzio-dokumentua sinatu zen.

Eraketa prozedura
San Telmoko zelaia egokitzeko urte bat baino gehiago behar izan zuen elkarteak. Bien bitartean prestakuntzarako lehen material-sorta eskuratu zen. Lurralde Federazioen lankidetzari esker, txapelketa ofizialak eta ligak antolatu dira San Telmoko zelaian. Ondorioz, tiro-eremua egokitu eta instalazioa praktika-baldintza onenetara egokitzea beharrezkoa izan zen. Horrela, Tiro-lerroa estaltzeko 30 metroko estalkia eraiki zen eta tiro-lerroa 3 metro zabaldu zen. Bi urte geroago, 2007an, metalezko edukiontzi bat gehitu zen lehiaketako materiala gordetzeko. Graficas Anakako Jon Sarasola arduratu zen Azeri klubaren logotipoa sortzeaz. 2011n, berriz, klubaren sorreraren hamargarren urteurrenarekin bat eginez, www.azeriarku.wordpress.com webgune informatiboa sortu zen.

Gizarteari egindako ekarpena
Azeri elkartearen izenean Patxi Goikoetxeak adierazi duenez, "20 urte labur gelditzen dira denbora tarte honetan elkarteak lortutako guztia laburbiltzeko". Esaterako, lau urte baino gehiagoz eskolaz kanpoko ikastaroak eskaini ziren, Hondarribiko ikasleei arku-tiroa hurbiltzen laguntzeko. 2004. urtean elkarteak lehen arkuteria buletina kaleratu zuen, Azeri klubaren lorpenen berri emateko, baina hori izan da momentura arte kaleratutako buletin bakarra.

Udako ikastaroek, Uda programaren bitartez, kirolari buruzko oinarrizko prestakuntza emateaz gainera, bazkide tiratzaile berriak erakartzea lortu zen. Era berean, Hondarribiko Udaleko Kirol Arloarekin Jostaldiko erabilera anitzeko gela txikia ikasleen ikastaroetarako eta teknifikazio- eta entrenamendu-gela gisa erabiltzea adostu zen.

Azeriren ekarpenaren erakusle dira azken bi hamarkadetan elkarteak antolatu dituen askotariko ekintzak. Azerik Hondarribiko Erdi Aroko Azokan parte hartu izan du, segurtasuna lehenetsiz, haur eta helduei arku-tiroa probatzeko aukera emanez. Bestetik, azken lau urteetan zehar Gaueko Tiradaren lau edizio antolatu dira abuztuan, gaueko iluntasunean argiztapen artifizialarekin tiratzeko esperientziaz gainera, afariaz eta arkularien anaitasun giroaz gozatzeko.

2002. urtean diseinatu eta egin zen Klubaren lehenengo tirada soziala irraileko lehenen astean, Hondarribiko jaietako jardueren programazioarekin bat etorriz. 2008an, berriz, lehenengo Azeri Saria antolatu zen, Euskadiko beste klub batzuei San Telmoko zelaian lehiatzeko aukera eskaintzeko, nahiz eta klubak lehiaketa txapelketen egutegian txertatzeko zailtasunak izan zituen.

> **"20 urte labur gelditzen dira denbora tarte honetan elkarteak lortutako guztia laburbiltzeko"**
>
> Patxi Goikoetxea, Azeri Arku Tiroketa elkarteko ordezkaria

Bidasoatik nazioartera
Klubaren jarduera ofiziala hasi zenetik, 2001. urtean, Azerik arku biribildua (olinpikoa) zein konposatua (poleak) praktikatu ditu, lehiaketa-formatu desberdinetan, aire zabalean nahiz aretoan, Espainiako lurralde osoan zehar. Gainera, klubeko arkulariek, Azeri ordezkatuz, Europako areto-lehiaketa ospetsuenean parte hartu dute, Frantziako Nimesko Nazioarteko Txapelketan parte hartuz. Ia mundu osoko tiratzaileak biltzen dira txapelketa handi horretan, mila tiratzailek baino gehiagok izena eman ohi duten lehiaketa ireki batean.

Azeriko hainbat tiratzaile Espainiako Talde Nazionaleko partaide izateko deituak izan dira, Munduko Kopetan, Europako Txapelketetan, Munduko Txapelketetan eta Mediterraneoko Jokoetan maila gorenean lehiatzeko. Horrela, kirol-munduan Azeri izena nazioarteko maila altuenetara eraman dute, eta emaitza eta kalifikazio bikainak lortu dituzte arku-tiroan Frantzian, Italian, Txinan, Mexikon, Turkian, Erresuma Batuan eta abarretan jokatutako txapelketetan. Azeriko kideek puntuazio-errekor nazionalak ere lortu dituzte, urte batzuez indarrean egon direnak.

Azeri, oraina eta etorkizuna
20 urte pasa diren arren, Azerik hasieran ezarritako balioekiko eta helburuekiko leiala izaten jarraitzen du. Adibidez, adinekoen kolektiboak eta mugikortasun murriztua duten pertsonak kirol-jardueran integratzeko saiakerari eusten dio.

Ibilbide horretan, Patxi Goikoetxeak Azeri klubeko ordezkariak adierazi duenez, "urte hauetan guztietan Hondarribiko Udalaren, Azeri ETE klubaren, Gipuzkoako Arku Tiroaren Federazioaren, epaileen, Euskadiko, Nafarroako eta Espainiako gainerako kluben eta kolaboratzaileen laguntza ezinbestekoa izan da" 2013an, arku-tiro estalia praktikatzeko indoor galeria bat sortzeko beharra atzeman zen. Instalazio horren ezaugarri teknikoak eta kokapen optimoa zehazteko diseinu bat aurkeztu zitzaion Hondarribiko Udaleko Kirol Arloari eta oraindik etorkizunean gauzatzeko dagoen zereginetako bat da. Bestetik, ikasle gazteen kategorientzako lehiaketa autonomiko-nazionala sortzea eta finkatzea nahiko luke Azeri elkarteak. Horregatik guztiagatik, 2021. urtean klubaren 20 urteko ibilbidea laburbiltzeko liburua kaleratu du Azeri elkarteak.

Haurtxoko gehiagorekin emango zaio hasiera 2021-2022 ikasturteari

2021-2022 ikasturtea inoiz baino Haurtxoko gehiagorekin hasiko da Irunen. Irungo 4 urtetik 11 urtera bitarteko haurrentzat egokitutako baliabideak dira. Haurtxokoek, aisialdiaz modu aktiboan gozatzeko aukera eskaintzeaz gainera, sormenaren erabilera bultzatzeaz, parte-hartzea sustatzeaz eta modu osasungarrian gozatzeko proposamenak eskaintzeaz arduratzen dira.

Haurtxokoetara joateko eskari handiari erantzuteko eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, zozketa publikoen bidez esleituko dira tokiak. Izen-ematea irailaren 3tik 9ra egin beharko da eta zozketa, berriz, irailaren 20an egingo da. Zozketan parte hartzeko Irungo Udalaren Egoitza Elektronikoan, HAZ bulegoan aurrez aurre, HAZ terminaletan edo 010 telefono-zenbakira astelehenetik ostiralera 8:00etatik 19:00etara eta larunbatean 8:30etatik 13:30etara deituta eman beharko da izena.

Santi Jiménez Gazteriako ordezkariak espazio horiek haurrentzat duten garrantzia nabarmendu nahi izan du. Gazteriako ordezkariak azaldu duenez, "oso ekimen garrantzitsuak dira haurrak hezten laguntzeko, jardueretan ohitura osasungarriak eta trebetasun sozialak sustatzen baitituzte".

Ondorioz, Haurtxokoen programak gero eta egoitza gehiago ditu eta San Migel, Pinudi eta Anzaran ingurura zabalduko da 2021-2022 ikasturtean. Horrela, haurren garapen integralerako proposamen sortzaile, estimulatzaile, dibertigarri eta hezigarriak eskaintzeko helburua indartuko da. Aurreko urteetako lan egiteko erari jarraipena emateko, heziketaren alorreko profesionalek tailerrak, irteerak eta familia-jarduerak antolatzen jarraituko dute, haurren trebetasun sozial, kultural eta artistikoen garapena bultzatzeko.

Xehetasunak

Haurtxokoak 2021eko urriaren 4tik 2021eko ekainaren 24ra egongo dira zabalik. Oinarrietan jasotzen den bezala, Haurtxokoen programa 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dago, hau da, 2010. eta 2017. urteen artean jaiotako haurrentzat. Programaren hurrengo edizioan parte hartzeko ezinbesteko baldintzetako bat haurrak Irunen erroldatuta egotea izango da. Hiru txanda ezarri dira haurtxoko bakoitzean. Astelehen eta asteazkenetan, 4 eta 8 urteko haurren txanda izango da eta ostiraletan, aldiz, 9 eta 11 urte artekoena.

Dena den, Haurtxoko bakoitzak ordutegi propioa izango du. Kateako Haurtxokoak ordutegi bera izango du astelehenetik ostiralera, hau da, 16:30etatik 18:30etara zabalik egongo da. Palmera Montero inguruko Txikitab Haurtxokoak ere ordutegi berdinarekin lan egingo du asteko egun guztietan, kasu honetan arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Lapitzeko Haurtxokoak eta aurten lehenengo aldiz martxan egongo den El Rancho Haurtxokoak ordutegi berean eskainiko dute zerbitzua, hau da, astelehenetik ostegunera arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara eta ostiraletan, aldiz, 17:00etatik 19:30etara.

2021-2022 ikasturtea

2021-2022 ikasturterako, guztira 240 plaza daude haurtxokoetan, COVID-19aren pandemia dela-eta indarrean dagoen araudia kontuan hartuta. Kuota 40,60 eurokoa da urritik ekainera bitarteko ikastaro bakoitzeko; 22,35 eurokoa, bigarren anai-arrebatik aurrera. Gainera, % 90eko hobaria dago Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten bizikidetza-unitateetako kideentzat edo Gizarte Ongizateko txostenak justifikatutako egoera berdintsuan daudenentzat.

Zozketarako onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda jendaurrean jarriko da ikusgai udalaren webgunean, irailaren 15 eta 16an. Gainera, zerrendak kontsultatu ahal izango dira 010/943 505 152 telefonora deituz 08:00etatik 20:00etara, HAZen autozerbitzu-terminaletan, Palmera Monteron eta Kutxabanken Anakako eta Kateko bulegoetan. Epe horretan, egoki iruditzen zaizkien alegazioak egin ahalko ditutze interesdunek. Epe hori amaitutakoan, eta erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat hartuko dira behin-behineko zerrendak. Erreklamaziorik aurkeztuko balitz, ebatzi egingo dira, eta irailaren 16an argitaratuko dira behin betiko zerrendak. Hala ere, informazio guztia eta oinarriak Irungo Udalaren webgunean kontsultatu daitezke dagoeneko.

TXINGUDI IKASTOLA HH

Denbora-pasak

7 hitz: Hoteletako instalazioak

K	M	E	C	V	U	M	D	N	D	Z	Y	D	U
H	O	C	N	V	R	Q	H	M	N	Q	X	I	P
T	F	R	B	A	I	N	U	J	A	N	T	Z	I
S	V	P	K	K	I	T	Z	A	L	K	I	N	F
S	Q	D	R	U	Q	S	F	N	C	D	T	R	K
O	G	A	E	Y	W	T	T	O	A	L	L	A	A
F	V	H	M	U	M	X	K	V	U	B	R	Z	P
W	T	X	A	N	K	L	E	T	A	K	R	V	E
B	R	D	Q	X	U	E	D	F	P	S	F	I	L
G	N	N	C	Q	L	Q	O	A	D	I	O	P	A
X	G	W	H	D	E	A	Y	F	K	O	E	O	N
B	E	T	A	U	R	R	E	K	O	A	K	Z	B
L	H	V	B	Y	V	J	E	U	N	A	W	P	F
Y	F	K	V	W	S	O	J	V	Y	E	R	D	Q

Toalla, krema, bainujantzia, betaurrekoak, txankletak, kapela, itzalkin.

	6			8			2	
8	5			7	6			
2				3	5	8	6	
				4	8			
	7	2	6					
6	4				3	9		
					2			8
3			4				5	
7				5		4		6

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Karlistadako denborako bertsuak

Azpeiti´ko neskatxak
gona gorriyakiñ
ezkonduko lirake
baluke zeñekin.
Ai ai ai mutillak
txapela gorriya.

Sarjentua mozkorrak
txarretera galdu,
neskatxak dirua eman ta
berriya egosi du.
Ai ai ai mutillak
Fandangulariya,
ai ai ai mutilak
txapeldun gorriya.

Irungo Kateako S. R. A. andereari jasoa (1959-X-11). Gaztetan kantatzen zuten. (El Bidasoa, 1959-XI-21).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

EGUZKITZA DBH4

ARTEA
Hezkuntzan Duen Lekua

21.mendean gaudela, nerabeen eta ikasleen artean gehienbat, asko hitz egiten da hezkuntzari buruz.Egia da, hezkuntza eskubide bat dela eta eskertuta egon behar garela, baina honen antolaketa okerra dela esan behar da.
Ikaslea naizen aldetik, eta jakinda internet gehienon esku dagoela hitz egingo dut.

Gaur egun, interneten (google, Youtube, Sare sozialetan edota abesti eta pelikuletan) eskolan baino askoz gehiago ikas dezakegu, eta horregatik, guri interesatzen zaiguna bilatzen dugu, eta ez diguna atentzioa deitzen , hor uzten degu, baliteke beste momentu batean, aurrerago, gai hori interesgarria iruditzea.
Nire ustez, etorkizun batean bizitzen jakiteko ikasgaiak egon behako lirateke, beste guztia inteneten bidez bila dezakegulako. Eta horretarako hainbat adibide izendatuko ditut:

- Gelan, esaldiak sintetikoki aztertzeko ikasgai bat dago, baina ez dago ikasgai bat gure soldata eta etxea kudeatzeko.
- Gelan, ez didate errenta deklarazioa nola egin behar den irakasten, ezta nola aurkeztu lan aurkezpen batean, baina bai izen sintagmako osagai guztiak buruz ikasten.
- Gelan, inork ez dit erakusten etxe bat erosteko modua, baina, munduko ibaiak ikasi behar ditut.
- Gelan, ez dut nire sentimenduak adierazteko modua ikasi, ezta nire irudimena zabaltzeko modua, baina taula periodikoaren talde eta elementu guztiak ikasi behar ditut
- Gelan, ez dago autoestima eta buru osasun klaserik, baina Matematikan ematen ditugun ekuazioak buruz ikasi behar dira.
- Gelan, ez ditugu arrazakeria, matxismoa eta homofobiaren kontrako klaseak ematen, baina katetoa eta hipotenusa kalkulatzen bikaina naiz.
- Gelan, biriken zuperketa egiten ez digute irakasten, ondokoa hiltzeko zorian egoten bada, baina Latin izeneko ikasgaia dago, Julio Cesarrekin bizitzera joateko asmoa burura etortzen bazait.
- Gelan ez digute irakasten gizartea hobetzeko modua, baina geroago ahaztuko ditugun pila-pila gauza buruz ikastera behartzen gaituzte.

Laburbilduz, uste dut hezkuntzak hobekuntzak batzuk egin behar dituela, etorkizunerako benetan behar dugun materia sakondu, debateekin, elkarrizketekin,... Prozesu motela izango da, baina guk. gaurko ikasleok, helduak egiterakoan, konpontzeko hobeak izango gara, ezta?

Lucia Blanco
4A

Sarah Grandes, artista:

“Beste herri edo tokietan nire lanak islatzea gustatuko litzaidake”

Sarah Grandes artista Emigrazio eraikinaren Pello Bixente kaleko fatxada apainduko duen murala lantzen ari da. Udalak sustatutako Kultura Km0 programako proiektua da. Artista irundarrak espraia eta esmalte pinturak erabiliko ditu muralaren sorreran. Artistak azaldu duenez, eraikinaren ezaugarriak kontuan izanik, emakumeak, kultur aniztasuna, immigrazioa eta mugikortasuna islatzen saiatuko da.

Nondik dator artearekin duzun harremana?
Txikia naizenetik margotu izan dut, beraz, artearekin harreman estua izan dut txikitatik. Unibertsitatera joan nintzenean arte ederretako ikasketak egin nituen. Orain dela 4 urte bukatu nituen ikasketak eta orduz geroztik nire kabuz erakusketak egiten eta artearen munduan jarraitzeko gauzak egiten saiatu naiz. Egia esan, ez da oso lanbide erraza, baina saiatuz gero pixkanaka gauzak ateratzen doaz.

Pandemia garai konplikatua izan da artistentzat. Nola bizi izan duzu zuk egoera?
Bai, artearen munduan pandemiaren eragina nabaritu da. Pandemiaren aurretik hainbat erakusketa egin nituen herrialde eta herri ezberdinetan. Pandemiaren hasierarekin adostuak neuzkan ekitaldi asko bertan behera geratu ziren eta taberna asko itxi ziren. Dena bertan behera geratu zen etxean sartuta egon ginen bitartean eta zailagoa izan zen nire lana erakustea.

Testuinguru horretan, Kultura km0 bezalako programak lagungarriak dira artistentzat?
Bai, noski. Egoera honetan asko eskertzen dira horrelako laguntzak eta, gainera, bertako artisten lana bultzatzea.

Irundarra izanda, pozgarria izan behar du hirian barrena zure lanak ikusteko aukera izateak?
Bai. Gainera, kalean lan eginda jende asko gerturatzen zaizu eta zure lanarengatik galdetzen dizu. Egiten ari naizen lanarekiko interes asko dagoela nabaritu dut.

Murala Irungo eraikin historiko batean kokatuta egoteak lana bereziago egiten du?
Ilusio handiz jaso nuen eraikin honetan lan egiteko aukera. Eraikina berritzeko lan handia egin dute eta nire lanarekin osatzeko proposamena jaso nuenean harrituta geratu nintzen.

Zein da proiektuaren bitartez islatu nahi duzun ideia?
Proposamena egin zidatenean hainbat gai eman zizkidaten nire lanean islatzeko: emigrazioa, emakumea, mugikortasuna eta gizarteratzea. Proposamenarekin diseinu bat prestatu nuen eta istorio moduan islatzen saiatu naiz. Orain egindako diseinua orma handi batean islatzeko unea da.

Eremuak materialen aukeraketa baldintzatu du?
Espraiak eta esmalte pinturak aukeratu ditut txapa nahiko material berezia delako, koskak baititu eta brotxarekin askoz zailagoa izango zen horrelako gainazal batean margotzea. Gainera, txapak ez ditu edonolako margoak onartzen. Horregatik, espraia oso aukera ona zela iruditu zitzaidan, baita aurrekontu eta lanaren dimentsioak kontuan hartuta.

Eguraldi txarrak oztoporik ezarri dizu sormen prozesuan?
Abuztuko bigarren astean lanean hasi nintzen eta lehen astean zehar gutxienez eguraldiak lana errespetatu didala dirudi. Bigarren aste honetan, berriz, eguraldia kili-kolo dabil. Euria egiten badu ezin dut margotu eta lehortu arte itxoin behar dut. Bestetik, haize asko egiten badu ezin dut margotu. Hortaz, eguraldira egokitu behar naiz lan egiteko, ez dago besterik. Lana abuztuaren amaierarako bukatuta egongo da ziur.

Lanean zauden bitartean jendearen iritzia entzuteko aukera izan duzu?
Lan egiten dudan bitartean musika jarrita izan ohi dut, baina hemendik igarotzen diren pertsona askok muralari buruz zerbait esaten didate edo nola lan egiten dudan ikusteko gelditzen dira. Jendeak zer margotzen ari naizen jakin nahi du. Beste askok nire ibilbide artistikoari buruz galdetu didate edo beren etxeetan gauzak egiteko proposamenak egin dizkidate.

Jendeak kalean dauden mural eta artelanekiko errespetua du?
Irunen dauden era honetako lanak jendeak errespetatzen dituela uste dut eta, hondatuta badaude, denboraren joanarengatik edo eguraldiarengatik izan dela uste dut, ez norbaitek hondatu dituelako. Proiektu serioak direnean, kaleko lanak gehiago errespetatzen direla uste dut.

Irungo lekuren batean nahi duzun lana egiteko aukera izango bazenu, non eta zer egin nahiko zenuke?
Joan den astean hemendik igaro zen gizon batekin hizketan Artia eta Hendaia artean dagoen orma bati buruz hitz egin zidan, orma polit eta handi bat delako. Mural bat egiteko leku egokia izan daiteke eta hor zerbait egiteko gogoak sartu zaizkit. Gaiari buruz, nik nahi dudana egin ahalko banu, bertara joango nintzateke eta bertako giroak transmititzen didanarekin bat datorren zerbait margotuko nuke.

Zein proiektutan murgilduko zara etorkizun hurbilean?
Mural hau margotu ostean, beste mural edo proiektu batzuk egiteko aukera izatea espero dut. Horrela, beste herri edo tokietan nire lanak islatzea gustatuko litzaidake. Bestalde, nire lokalean koadroak margotzen jarraitzeko asmoa dut, nire proiektuak garatzen jarraitu ahal izateko.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Eusko Jaurlaritzako Bekak

Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzetarako 2021-2022 ikasturteko deialdia.

Nori zuzendua? Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ikastetxeetan honako ikasketak egiten ari diren ikasleei:

-Haur Hezkuntza ("Haurreskolak Partzuergo"ko haurrak izan ezik)

- Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko

- Bigarren Hezkuntza

- Batxilergoa

- Oinarrizko, erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa

- Musika eta Dantzako ikasketa oinarrizkoak eta profesionalak

- Arte Plastikoak eta Diseinua: Heziketa Zikloak
- Kirol-ikasketak

- Hizkuntzako Ikasketak

Epea: 2021eko irailaren 30era arte.

Euskara ikasteko edo hobetzeko bekak

Norentzat:

- Irunen, HABEk homologatutako taldeetan matrikulatutakoak.

- HABEk homologatutako edozein zentrotan matrikulatutako pertsonak, baldin eta Irungo euskaltegietakoa ez den eskaintza akademikoa badute, eskaintza horretako talderen batean onartuak izan ez direnak, edo ordutegi-, ikasketa- edo lan-arazoengatik eskaintza horretan sartzeko ezintasuna frogatzen dutenak.

- Euskaltegietako talde berezietan, unibertsitateetako udako euskarazko ikastaroetan eta aisialdiko edo kiroleko ikastaroetan euskaraz matrikulatutako pertsonak.

Nola: Eskaerak www.irun.org Egoitza Elektronikoaren bitartez egingo da Irun Txartela, Izenpe ziutagiria edo NAN elektronikoa erabiliz.

Epea: 2021eko urrriaren 7a. Gogoratu 16 urte edo gehiago bete behar dituzula ikasturtea hasten den urtearen barruan, eta Irunen erroldatuta egon behar duzula 2020ko irailaren 1a baino lehen.

Galdetegia

Galdetegi hau People & Planet: Patu Partekatu bat proiektuaren ikerketa-fasearen parte da. Proiektu horretan parte hartzen ari dira Portugal, Alemania, Irlanda, Italia, Polonia, Errumania, Espainia, Herbehereak eta Cabo Verde.

Galdetegiak 16 galdera dauzka, eta hamar minutu inguru beharko dituzu erantzuteko.

Zure ekarpenak oso baliotsuak eta garrantzitsuak dira proiekturako!

Gehiago jakin nahi dugu !

GAZTELAGUN

Gaztelagun programa

18 eta 35 urte bitartean badituzu, zure diru-sarrerak erregularrak badira eta zure ohiko etxebizitzarengatik alokairua ordaintzen ari bazara... Hau interesatzen zaizu !!!

Alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzak!

Gaztelagun:
Eusko Jaurlaritzaren plan berria da, gazteen emantzipazioa sustatzeko. Hala, alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzak ematen zaizkie.

Epea: Eskaerak aurkezteko epea 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean egongo da irekia.

Harremanetan jartzeko: 945 569 020 telefono-zenbakira deitu, 8:30etatik 18:00etara, gaztelagun@alokabide.eus helbidera idatzi edo gure bulegoetara hurbildu.

DYA ikastaroak

Lehen Sorospenak

- Egunak: abuztuaren 16tik 27ra

- Ordutegia: 10:00 -13:00

- Prezioa: 120 €

Oinarrizko lehen sorospen ikastaroa

- Egunak: abuztuaren 28 eta 29

- Ordutegia: 09:00 - 14:00

- Prezioa: 60 €

Lekua: DYA (Baratzategi k., 10 - Intxaurrondoko auzoan - Donostia)

Izen emateak edo informazio gehiago: deitu 943 46 46 22ra edo sartu hemen: www.DYAgipuzkoa.com



Irailaren

5era arte

Erakusketa

Zer: 18 cm sariketan, haurtzaroaren gaia ardatz hartuta, aukeratutako obren erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara bitartean eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara bitartean.

Sarrera: Doan.

7

Kontzertua

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 19:45etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

10

Dantza hirian

Zer: Dantza Hirian mugaz gaindiko jaialdi ibiltariaren barneko emanaldiak.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua:

- 19:00: NODE (Euskadi) "Tránsito".

- 19:25: ARCAT DANCE (Andaluzia) "Adama".

Sarrera: Gonbidapenarekin.

10

Elkarrizketa

Zer: Antonio Colinasekin elkarrizketak.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Izen-ematea: Helbide honetara idatzi: oskarbi.elkartea@gmail.com

17tik aurrera

Erakusketa

Zer: Adour Bidasoa XXX. Margo lehiaketaren erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 18.00etatik 21:00etara; igande eta jaiegunetan, 11:30tatik 13:30tara.

Sarrera: Doan.

19

Gira Bira

Zer: Gira Bira programaren barnean, ilustrazioei buruz antolatutako ekintzak.

Non: Soroxarta parkean.

Ordutegia:

- 10:30tan Tailerrak
- 12:30tan Kontzertua

Denbora-pasen emaitzak

K	M	E	C	V	U	M	D	N	D	Z	Y	D	U
H	O	C	N	V	R	Q	H	M	N	Q	X	I	P
T	F	R	**B**	**A**	**I**	**N**	**U**	**J**	**A**	**N**	**T**	**Z**	I
S	V	P	**K**	**K**	**I**	**T**	**Z**	**A**	**L**	**K**	**I**	**N**	F
S	Q	D	**R**	U	Q	S	F	N	C	D	T	R	**K**
O	G	A	**E**	Y	W	T	**T**	**O**	**A**	**L**	**L**	**A**	**A**
F	V	H	**M**	U	M	X	K	V	U	B	R	Z	**P**
W	**T**	**X**	**A**	**N**	**K**	**L**	**E**	**T**	**A**	**K**	R	V	**E**
B	R	D	Q	X	U	E	D	F	P	S	F	I	**L**
G	N	N	C	Q	L	Q	O	A	D	I	O	P	**A**
X	G	W	H	D	E	A	Y	F	K	O	E	O	N
B	**E**	**T**	**A**	**U**	**R**	**R**	**E**	**K**	**O**	**A**	**K**	Z	S
L	H	V	B	Y	V	J	E	U	N	A	W	P	F
Y	F	K	V	W	S	O	J	V	Y	E	R	D	Q

1	6	7	9	8	4	5	2	3
8	5	3	2	7	6	1	4	9
2	9	4	1	3	5	8	6	7
9	3	1	5	4	8	6	7	2
5	7	2	6	1	9	3	8	4
6	4	8	7	2	3	9	1	5
4	1	5	3	6	2	7	9	8
3	8	6	4	9	7	2	5	1
7	2	9	8	5	1	4	3	6

HAMAIKA

www.hamaika.com

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com